



## 5. KANALAK

---

### SALMENTA KANALA

Gure produktua saltzeko, webgune propio bat izango dugu non bertan bezeroak gure produktuak erosteko aukera izango dituzten. Ez dugu denda fisikorik edukiko ordaindu beharreko kostu bat delako. Izan ere, webgune bidez edalontziak saltzea nahikoa dela uste dugu.

### BANAKETA KANALA

Gure kasuan, produktua bezeroengana helarazteko, Seur moduko enpresaren bat kontratatuko dugu, tabernetara eta diskoteketara eraman dezaten. Produktua bezeroengana heltzeko dauden bidaltze-gastuak gure gain hartuko ditugu 100 edalontzitik gorako eskaera bat egiten badute, bestela bezeroak 2,5 euro ordaindu beharko ditu.

### KOMUNIKAZIO KANALAK

Bezeroek gure produktua eros dezaten, haiengana heldu behar gara modu batera edo bestera. Gure ideia lehendabizi aldizkarietako publizitatearen bitartez gure produktuen berri ematea da. Horrez gain, sare sozialak (twitter, instagram...) erabiliko ditugu gure produktua besteei jakinarazteko, baita webgune propio bat ere. Azkenik, youtuben iragarki bat jarriko dugu.

